

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

169n. Zenbakia Abendua - Gabonilla
1992



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN (1914)

- IDAZLE UGARIA
- ONDARRUKO SEME TXIT ARGIA
- EUSKERAZALEAK ALKARTEKOA
- EUSKERAZAINTZAREN LENDAKARI-ORDEA
- "ZER" ALDIZKARI ONEN LAGUNTZAILLE TREBEA
(Omenaldia Ondarroa'n 92-11-8)

"EUSKALDUNOK MAITE ETE DOGU GURE EUZKEREAA?"

Orixe da, bein eta barrero, nire buruari egiten dautsadan itauna; egunetik egunera, euzkerearen inguruan jazoten dana ikusiaz.

Idaz-lan onetan, alde batera itziko dodaz euzkerearen oizko arerioak (U.A., P.P., P.S.O.E. eta euren aldekoak, esaterako), eurak ez diralako euzkerearen egoera latzaren errudun bakarrak eta bai euskaldun askoren zabarkeria eta arduragabekeria salatu bear dodazala.

Euzkerearen euskarrien artean iru aipatu gura neukez.

Oneixek: Euskaldun zarrak, ikastolak eta bertoko alderdi "abertzaleak".

Goiazan banan-banan aitatzuz.

a) Ikastolak. Egia da ikastolak zenbat gura doguzala, ume asko joaten dirala eurretan eta ori poztutzekoa da, jakiña. Baita be, "Nafarroa oiñez", "Araba euzkeraz", "Ibillaldia", "Kilometroak" eta olangoak egiten dira euren alde. Alan be, euren eragiña oso gitxi igarten da kalean eguneroko bizitzan. Eta ainbat laguntza jaso eta artu arren ori gertaten bada, gure euzkerea aurrera egin-bearrean atzera joakularen ondoriora elduko gara.

b) Euskaldun zarrak. Emen irugarren adibidea... eta mingarriena be bai.

Eurak doguz gure izkuntza maitagarriaren oiñarria. Beti belaunaldiz belaunaldi euzkerea jagon edo zaindu dabenak.

Gaur egun, ostera, gauzak aldatu dira eta ez onerako ain zuen.

Ondo baiño obeto dakigu erderaren eragiña oso nabarmena dala euskaldun jatorren artean eta ori euzkerearen kaltez doa, zalantza barik. Orrelan, geure euzkera ederra bazterturik, erderari gogotsu ekiten dautsoe. Bearbada, izkuntza "dotoreagoa" dalakoan. Eta orren ziñaldari edo lekuko ni neu izanaz bein baiño geiagotan.

Adibide batzuk siñisteziñak dira. Bat aitatzearren auxe: Bizkaiko erri euskaldun baten, oso euskalduna ganera, jazo zan.

Bein, nere aita ta biok joan gitzazan erri orretara (izenik ez dot esango) senideai ikustaldi bat egitera eta andik zear genbilzala lagun batzuk topatu genduzan. Eurekaz mintzatzan asi giñan. Danok giñan euskaldu-

nak, baiña guk euzkeraz berba egiten genduan bitartean, besteak erderaz erantzuten eben. Eta olan jarraitu gendun banandu arte. Ez al da kezkarria?

Onegaz ez dot esan gura danak jokabide berbera daukenik. Ezelan be. Ondiño, ba-doguz euskaldun zintzo ta jatorrak, zorionez. Baiña euskaldun erdalzale orrein kasuak ugari dira eta ori da kezkarriena.

Errialde bateko biztanleak ez dau bere ama izkuntza maitatzen, izkuntza ori atzeraka joango da, guztiz baztertu ta aztua geratu arte. Eta arrisku orretan dogu gure euzkerea. Zenbat eta gitxiago erabilliz, gero eta urrago izango dogu gure izkuntzaren amaia.

Lerro oneik egiten dodazanean, Catalunya-aldean naz, eta emen ikusten dodanak inbiri edo bekaizkeri antzeko bat sortzen daust nere barruan, geure aberrian gertaten dana gogoratzean.

Izkuntza-arloan, Catalunyarrak apartekoak dira. Danak batera doaz. Danak darabille "catala": gazteak zein zarrak, aberatsak zein langilleak, kirolariak zein salerosleak.

Ori bai dala izkuntza maitatu, gorde eta aldeztutea. Guztiz txalogarria. Eta guk zergaitik ez egin beste orrenbeste? Ain ardurabakoak izango ete gara, gure euzkerari ilten lagateraiño?

Euskaldun zarrak: Ekin egiozue zuen euzkereari!! Ederra eta garbia da ta. Ez lotsatu zuen euzkereagaz, gaurko sasi-jakintsu batzuk txarra dala esaten dautsue-elako. Ezta pentsatu be. Zuekan geure ama euzkera bizi dalako eta zuen jakituria eta aolkuak oso bearrezkoak doguzalako euskaldun eta euskaltzale barriok.

Pentsatu dagigun, euzkera il ezkeru, geure nortasuna eta euskal sena galduko doguzala. Eta euzkera barik zelan izan leike Euskal-Erria?

Ortxe dago koskea eta gure izkuntzaren geroa.

1992ngo irailaren 18an.

"KALAMUA"

ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN

(Euskalduna)

GIZONAK BEAR

Gure erriko jenteak ba-daki esaten erria umezurtza dala. Eta ba-dauka esaldi orrek bere esangura sakona. Antziñakoak beste era batera esaten eben gauza bardiña: "Askoren artean egin bear dana, askotan itzi egiten da".

Beste esaldi batera oratuz, au be esan geinke: Bide-erzian zaurituta dagoana, erriaren ezaugarri dala. Eta erri batzutan ez zaurituta dagoalako bakarrik, lapurren eskuetan jausi dalako be bai. Zenbat erritan, bai Ameriketara eta bai arabiarren artean, erri-agintari aberastuak erri oso txi-roetan.

Erriak aurrera egin bear ba dau, gizonak bear dauz. Agintariak eta errigiñak, bai, baiña oneik ez dira naikoa, erri-gizonak bear dira.

ZELAKO GIZONAK

Erriaren alde lan egin bear daberen gizonak, erriz jantziak izan bear dabe: Erriaren sena, erriaren izkuntza, erriaren berezitasunak ... eta gaiñera benetako erri-zaletasuna bear dabe.

Olako gizonak erria maite dabe, baiña ez erri ona dalako, erri ona egin bear dalako baiño.

Biotz zabalaz lan egiteko lako gizonak izan bear dabe, ez diru-zalakeriz, doan bear ba da doan, eta ordaiña emoteko erarik ba dago ordainduta, baiña erri-zaletasunagaitik.

NOIZEAN BEIN

Olako gizonak, noizean bein izaten dauz erriak, batzutan goi-mailla-koak eta beste batzutan zeigoak.

Gure irudimenak berak be ezin daike iruditu, gaur Euskalerrria zelakoa izango zan Arana'tar Sabin edo Agirre'tar Joseba Andoni agertu ez ba'litzaz Euskalerrrian. Baiña agertu ziran eta euren ondorenak bein eta barriro agertzen jakuz erriaren aurrera-bidean.

Antzera esan geinke idazle ospetsu askori buruz edo ereslari aundi bezui begira eta beste arlo askotan.

Bertsolariak omenaldian

Noizen bein, olako gizonak agertzen dira errien kondairan !Zorionez!

Errigiñak dira.

AUGUSTIN' en IKUTUA

Errigizonen lana neurtzeko, aldi beratan bizi diranak ez dabe izaten aukera ona. Olako gizon batek zelako ikutua izango dauan kondairan, kondaira aurrera doanean, neurtzen da.

Guk esan geinke gizonak zenbat lan eta zelakoak egin dauzan. Eta Augustin Zubikarai'ri buruz, ZER onetan naikoa agertzen dira.

EGUNA eritxon lenengo egunkaria atera izatea, aitzuz-eziñeko lana izango da eta elerti-arloan Augustin'ek argitaratu dauzan ainbeste liburu eta ainbeste albistaritan idatzi dauan ainbeste idaz-lan ez dira aitzuta geratuko.

Eta errigintza-arloan beste lan bi kontuan artuko diranak: Bizkai'ko Batzar Nagusietan bete dauzan ekintzak eta Ondarroa bere errian jakintza edo kultura indartzeko egin dauan lana. Ez bakarrik, taldean, baiña ekin eta ekin.

Ondo irabazia izan dau Augustin'ek omenaldia eta ondo egiña gaiñera erriko seme txiki argi lez artua izatea eta errian enparantza batera bere izena jaratea. **ZORIONAK!**



AUGUSTIN'EN LANAK

1914.urtean jaioa, Ondarroan egin zituen leenengo ikasketak, geroago, Saturraranera jo zuen bertako Apeztegian lau urtez ikasten segitzeko eta ondoren, Gasteizera, filosofia ikasle urte betez. Gazte zelarik ekin zion lumari eta alaxe, guda aurretik jadanik asia genuen artikulatuak plazaratzen, "Euzko", "Gudari", "Euzkadi Jel" edota "Argia" bezalako euskal argitalpenetan, gudaldian zear ere, "Euzkadi" eta euskara utsezko beste egunkarietan garaiko beste idazle askorekin elkarlanean aritu zen eta, 22 urte besterik ez zituela, "Eguna" egunkariaren zuzendariorde genuen.

Berak, geienbat, kazetaritza eta antzerkia landu zituen asieran. 1933-1936 bitartean lau ziren idatziak zituen antzezlanak: Aberriagaz bizi, Illobaren indarra, Itxaslapurrak eta Itxasertzeko itsu mutila, "Euzkadi"k argitaratuak.

Guda bitartean kazetari eta gudari ibili zen, gudari, Bilbo galdu ondoren Laredo makurtzea gertatu bitartean, batez ere. Abagadune aietako ondorengo urteetan, Castro Urdiales, Aranda de Duero eta Miranda de Ebroko konzentrazio zelaietan lan beartuak egitea, Donostia eta Azpeitian 1936.ean gartzeleratuta egotea eta, kazetari gisa trukaturik, Tarbes eta Lannezemezian errietan atzerriratua egotea suertatu zitzaion, beste zenbait gertakariaren ostean, 1941.ean Ondarroara itzultzerik izan zuen arte. Gerra garaian, gazte zelarik indar biziak asia zuen bideari eutsi zion, ala ere, ez zuen eduki euskal kazetari-tzan geiago idazterik, euskaraz idazten zuen kazetari arentzat non idatzirik ere ez zegoen eta. Orduko denboretan, bere erriaren ondoan, Mutrikuko lantegi batetan aritu zen lanean.

Urteetan goxo-goxo landu izan duen lana antzerkigintza izan bada ere, olerkigintza eta elaberrigintza ez ditu albo batera utzi. Antzerki lanetan ainbat eta ainbat idatzi ditu, eta orietatik asko antzeztu eta saritu ere egin da, ala nola Itxasora (1945), Miarrizten saridun; Seaska inguruan (1960), Gipuzkoa izeneko 2. saria; Jaunaren bideetan (1961); Kresaletan (1964); Mariñelak (1965); Iru alaba (1963), Toribio Alzaga sariduna; Bizi garratza (1967), Gipuzkoa sariaren aipamena jasoa; Lurrunpean (1968), Gipuzkoa saria; Errekonduan (1969), Gipuzkoa saria; Mendi zaarrak (1969), Toribio Alzaga saria; Mendi eta itxaso, Markinako Lore Jokoetako sariduna, eta Eskola maixua (1984), Santurtziko saria; Baina izendatutako auez gain beste amaika antzerki idatzi ditu.

Augustin, kazetari eta antzerkigilea dela ezaguna izanik, ixilean bada ere, olerkigilea ere bada. Zangotzako Lore Jokoetan 1967. eta 1968. urte bietan saridun gertatu zen eta beste orrenbeste, Zornotzako Lore Jokoetan, bai eta Larrako Olerti Sarian eta Laukizko "Lauaxeta" leiaketan ere. Ez du ordea, olerki libururik argitaratu.



Elebarrigintzari beranduago eldu dio Augustinek, literatur sormen onen asiera 1978.ean finka genezake, Bale denporak plazara irtetzeaz batera ain zuzen, arrez geroztik elebarrigile oparoa izan da, Esan eta esango (1979), Azkue Saria; Anton Guzuretze (1979), Txomin Agirre Saria; Laiñoak Mundakan (1980), Mundakan (1981), Itxastarrak (1985), Garratz eta gordin (1986) eta Zaldupeko Txikiena (1991).

Azkenik ezin aipatu gabe utzi, itzulpengintzan eginiko amai-katxo lan eta Ondarroa eta Lea-Artibai eskualdearen inguruei eta gaiei buruz idatziriko makina bat artiluku eta liburu, ala nola, Ondarroa baserri giroan (1985); Mendeja (1988); Markina Xemein I eta Markina Xemein II (1991), Munitibar (1992).

Gaur egun oraindik ere etengabe ari da idazten, berak esan bezala "lanean segitzen dut, azken obra aurtan bertan idatzia da" (Egin, 1991-12-19). Aipatu bearra dago 1961. urteaz geroztik Euskaltzain Urgalea dela eta bere buruari egotzi dizkion ainbat eginkizunen artean, besteak beste, aldizkari zuzpertzaille, kolaboratzaile eta zuzendari, edota Euskarazaintza Akademiaren Lehendakariorde izan ezezik Ondarroako Udal Kultur Etxearen Zuzendari ere bada.

Ezer esan aal baledi Augustin Zubikaraik eginiko lanaz oparoa eta era askotakoa dela da. Ez da erraza euskal literaturan berak adina sortu dutenik aurkitzea, izan ere, bere berbak, bigunak batzuk, garratzak besteak, itsas irudietatik sortuak izan ala ez, berez ateratzen zaizkio, eta bere euskalkian idatzi oi dituen lanak, denbora laburrean asi eta amaitzen ditu.

Omenaldi 1992 Liburuska
Ondarroa
(Egokitua)

AUGUSTIN ZUBIKARAI, ONDARROAKO EUSKALGINTZAREN LEKUKO ETA ZUZPERLEA

Omenaldi baterako lerro batzuk idazteak egiteko erreza dirudi. Azalean bada be, laudorio eta lausengotan ibiliz geroz omenduagaz, orrelakoak idazten dituanak aregaz ondo gelditzeaz batera, bere buruagaz be alako asmo-beteko ustea euki izan dau beti.

Baina orrela jokatzek dakar, berez eta ez-bairik bage, susmo baten moduko usaina, ain zuzen be, omenduari buruz idatzitako ori noraino dan egiazkoa edo/eta losintxa non asten dan jakitekoa.

Augustinegaz orrelakorik gertatzea ez neuke nai, orrexek berari benetan jagokozan merituak txikiagotzea ekarriko leukeelako. Orrexegatik lerro oneexetan nik neuk bera zelan ikusi dodan eta beragaz azken amarkada onetan euki dodan artuemona azaltzen eta pateratzen saiatuko naz.

Egia esan, Augustin 1982. urtean ezagutu neban buruz buru. "Arpegi ikuste" ori leen Ikastola kalean neukan eskribautza bulegoan gertatu zan. Orduko lore-joko edo antzeko kultur ekimen bat zala bitartekoa, alkar ezagutzeko aukera euki genduan.

Aurretik, alan da guztiz be, Eusebio Erkiaga izan zan alkarregazko ezaupidea emon euskuena. Lekeition ezagutu neban nik au eta onek, zeresanik ez, aspaldixkoa eukan Augustinen ezaguera, ain zuzen be, gerra aurreko garaietatik, bion arteko senidetasuna be autortzekoa dala.

Arez gero, Augustinek Ondarroako euskalgintzari betidanik ekarri izan deutan oparotasuna dastatzeko zorrea euki dot, beste ondarrutar guztiekin batera.

Lore-joko, literatur Ieiaketa, liburugintza, aldizkarigintza (ortxe dago "Ondarroa", urterik urte, bere irakurleekin bat egiten, uts txikiena be egin barik) eta abar luze bat eragin eta bulztatu ditu gure Augustinek, bere liburu eta artikulugintzari muzin egin barik. Bion arteko adizkidantzaz gain, irratitik entzun, egunkarietan irakurri eta lantzean bein libururen bat bere eskutik jasotzea izan dira, besteak beste, azken amar urteotan Augustinengandik jaso dodan emoitza aberasgarria, orrelakoe-tan parteartzeko deiak be aaztu barik.

Zelakoa, alabaiño, aren idazmoldea? Galdera oni gai oneetan ni baino jantziago diran jakintsuek emon bearko deutsoe erantzuna. Luze jardun daiteke Zubikarairen idaztanceraz eta moldez, berak gauzak esateko eta adierazoteko daukan jite eta jasa bereziaz. Nik neuk, ostera, ementxe azpimarratu nai dot Augustinen artikulua edo eta itzaldiak irakurri edo entzun ostein beti sentidu dodan zirrara berebizikoa, idazle eta kulturegile bakan batzuk bakarrik eskaini dagikeena eta berebat edozein irakurle edo entzuleren jakingura pizten dauana.

Ez da nekagaitza, ezta aspergarria be, bere prosa arina, ondo tajutua, Augustinek idatzitako ainbat eta ainbat orrialdetan zear nabarmentzen jakuna.



Euskerazaleak eun Euskerawint:ako lankide batzuk omenaldian, beste senide, adiskide ta ondarrutar askogaz.

Bien bitartean, bizitza be aldatu jako gure Augustini. Alargundu eta gero, orain etxebarritu egin jako Zubikarai, Orain dala urte batzuk. Zubibarriko etxean, bere liburu eta guzti, Augustinek burutu dau Euskalerrian azken urteotan emon dan euskalgintza oparoenatariko bat, ia-ia parekorik ez dauana.

Etxean esan dogu, baiña etxetik kanpo be, Augustinek amai-katxo aaleginetan ibili eta ondino be jabilku, Euskerazaintza, sasoi baten Bizkaiko Batzar Orokorretako aalduntza eta abar luze bati ekinez. Bere itzulpenak, moeta askotakoak, kontaezinak dira eta bere gogoa eta zuzendaritza, Ondarroako Kultur Etxean, tinko eta segurua, Ondarroako ospea eta izena lau aizetara zabaldu dituala.

Orretan darrai gure Zubikarai egunotan be, berba eta lurra-ren jariora moldatu naian. Eta aurrerantzean be orrela jarraitu dagian, ona emen eskura jatorkun bidearen geldiunea, berari egiten dautsagun omenaldia.

Pozarren artzeko ereti egokia beraz, onako au, baiña era eta aldi berean be, Augustini euskalgintzan jarraitzeko eskabidea egin eta guk geuk be geure buruei, Augustin Zubikarai eredu eta ezinbesteko osagarri dugula, euskalgintza orretan partearitze eta konpromezu sakonago baterako deia zabaltzeko une ezin aproposagoa.

Orrela bakarrik lortuko dogu, nire ustez, astear dagoan XX. mende orretako euskal literaturan eta orokorrean, euskalgintzan be, gaur egun, Ondarroa eta ondarrutarrek Txomin Agirre-rengandik Augustin Zubikarairenganaino, beste asko be tartekoak dirala, erakutsi daben nortasuna eta ondorioz, merezimendu osoz eskuratu daben lekua oorez mantentzeko gai izatea.

Andr s Urrutia
Omenaldia 1992 Liburaska
Ondarroa
(Egokitua)

ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN'ERI OMENEZ

Arratsalde on jaun andreok:

Ume-umetatik ezagutzen dot Zubikarai. mojak irakasle ziran Parbuluak izeneko eskoletan lau urte ingurugaz alkarregaz asi giñanetik. Buru argikoa zala bereala erakusten emon eban. An ibilli giñan lau eskoletan, beti lenengo tokietan egoten zan. Ondo gogoratzen naz au erakusten daben kontutxo bategaz. Iru giñan eskolan besteak baiño aurreratua goak: berau Zubikarai, Andoni Basterretxea gero abade egin zana ta neu. Ta mojetako eskoletako azkenengo urtea laster amaitzeko egoala. Sor Luzia'k, berau bakarrik problemetara igaro eban: eta Andoni eta biok, inbiriz beteta begiak urten bearrean begira edo irakurten egoten giñan mojiak beroneri pizarratxoan ipiñitako problema-txoak.

Gero, oraindik mutiltxo zala, abadegai joan zan Saturraran'era eta gitxitu egin ziran bion arteko artu-emonak. Baiña ordutik urte batzutura seminarioa itxita (lagata) etorri zanean. gauza batek baiño geiagok alkarren onduan ipiñi ginduezan. Erriratuta laster, bi edo iru urtera luis-tarren bazkunako zuzendari ipiñi eben; eta geu be batzordekoak giñan eta an ibiltzen giñan beronen inguruan.

Baiña. bion arteko artu-emonak anditu zitua, euskera idaztea izan zan. Zubikarai'k ba ekian euskerearen irakurlea nintzala; eta EKIN asterokora idazten asi bear nintzakeala esan eustan, oraindik ogei urte ez nituala. Berau ordurako. asteroko a egiten eben Jaungoiko Zale taldekoak lanian asita egoan; idazten eban Zornotza'tik urtetan eban aldizkari aretan. Eta alantxe asi nintzan Ondarru'ko barriak EKIN'era bialtzen. Beronek lagundu eustan lenengo idazlana egiten, beronek orraztu eban. Eta izenordea be beroneri burutatu jakon.

Orduan be Zubikarai'k asko idazten eban, beti izan da idazle ugaria ta izenorde bat baiño geiago erabili zituan aldi aretan. Aita Onaindia'ren Milla Euskal Olerki Eder. liburuan datozen Edurne ta Itxu-lekua izeneko olerkien egille lez, Amesti dator. Onaindia'k ez ekien Amesti nor zan. Ara berak diñoana: "Nor dogu berau? 1934'garrenurantz, gure izparringi ta egunerokuetan idazten ziarduan; eta ederto atan be". Ba, Onaindia'ren ustez ondo idazten eban a, Zubikarai zen: beronegandik jakin neban gerotxoago. Baiña, Zubikarai'ren orduko danok ezagutzen genduan izenorde nagusia. Arteta zan. Ondarru'ko baserri baten izena.

Izparringietan idazteaz ez zan geratzen Zubikarai: beste egiteko garrantzitsu baten arduradun be ba-zan: antzerkiarena. Orduan batzoki asko ziran euskal antzerkia egiten ebenak eta Ondarru'koak be egiten eben. Antzerki taldea sortu ebana ta zuzendaria, Zubikarai izan zan. Eta zeregin onetan beronen lan guztia ez zan izan antzerkiak emotea bakarrik: antzerkiak idazten be orduantxe asi zan eta beronen antzerki bi, emon be egin ziran: "Aberriagaz bizi" ta "Illobearen indarra" izenekoak.

Zubikarai'ren lan andia bereala nabarmendu zan; eta ori eskertu nai izan jakon. Orduan San Andr s eguna ospatu egiten eben abertzaleak, apariak-eta egiñaz. Eta 1935'garren urtea zala uste dot, aparia, Zubikarai'ren omenez izan zan. batzokian.

Baiña Franco ta lagunak matxinadan jagi ziran eta guztia ankaz gora joan zan. Francotarrak errira urreratu ziranean, iges egin bearra egoan eta alantxe, Zubikarai ta ni, alkarren barri jakin barik, itxasontzi baten gertau giñan Frantzi'ra iges egitean, eta Donibane Loitzun'era joan giñan.

Zubikarai. an be euskera gogoan ebala egoan eta idazlan bat edo beste argitaratu zituan ango euskal asteroko Eskualduna n. Beronek an denpora gitxi egin eban, aste batzuk. Eta Bilbora biurtu zan. Eta emen beronek egin ebana nik beste edo obeto dakizue: Euskal Jaurlaritz'a'k lenengo euskal egunerokoa sortu eban, Eguna izeneko: ta erredaziño-ko buru ipiñi eben Zubikarai; eta zeregin aretan ederto erakutsi eban beronen gaitasuna.

Gero Bilbo galdu zanean atxillotu egin eben eta or ibilli zan beste asko lez espetxe ta laneko bataloietan. Ni orduan, Bidasoa bestekaldean

nengoan, Lapurdi'ko Itxasu izeneko erritxoan; eta egun baten, olakorik gitxien uste nebanean. Zubikarai'ren eskutitza eldu jatan Endaia'tik. Eta bereala bizikleta zar bat artuta an joan nintzan berrogei kilometroko bidean beronengana. Ta antxe alkar besarkatu ta naibeste kontu esan genduzan. Kanjeatuta etorrita egozan Bilbo'ko bederlatzi izparkari edo periodista. Bera bakarrik, euskerazko idazlea. Ez naz gogoratzen zeintzuk ziran Franco'ren aldeko trukaturakoak. Bartzelona'ra joateko urtean egozan, baiña ez ziran joan, gudea laster amaituko zana agirian egoan da.

Gero emen. Franco'ren lenengo urte batzutan, ez egoan euskerearen alde lan egiteko girorik: baiña zer bait argitu zanean, laster asi zan lanean Zubikarai, antzerki sariketetan parte artuaz eta aldizkarietan idazlanak argitaratzen. 1950'garren urtean Miarriz'ten irabazi eban antzerki sariatz gañiera, emen, 1966' an irabazi eban lenengo saria, orduan be antzerkiak. Ta 1957'garren urtean asi zan barriro idazlanak argitaratzen Zeruko Argia'n izenorde barriagaz. Oraingoa Ondarribi zan. Eta ain zuzen, alkarren barri jakin barik. neuk be Zeruko Argia'ko zenbaki aretan idatzi neban guda ezkeroko lenengo idazlana. Ta biok antzeko idazburuak ipiñi geuntsezan geure idazlanai: Zubikarai'k, "Eutsi fedeari" ta nik "Eutsi euskerari". Au da. biok abertzaletasunaren elburuko atal bietako baten alde idatzi genduan: Jaungoikoa ta Legezarraren alde.

Ordutik laster, bi edo iru urtera, estanpa erako antzerkiari gogotsu eldu eustan Zubikarai'k. Urte batzuk lenago Markuerkiaga'tar Jose'k eratuta, orduan Don Imanol Orueamazaga abadeak zuzentzen eban abesbatza zan Ondarru'n. Zubikarai tartekoa zan; eta abesbatz aregaz baliaturik zer bait on egin eitekeala bururatu jakon Kontixu ta Seaska-inguruan izenekoagaz asi ta ainbat antzerki, abestiakaz lagundutekoak, idatzi zituan eta ainbat erritan emon be. Atxukale'k esanda jakin dodanez, 54 urteera egin zituen beste errietara antzez-lan areik emoten. Eta abeslari ta guzti eun lagunetik gorako taldea zan.

Gero, danok dakigun lez, izparringietan eta aldizkarietan idazteari laga barik, milla modutako lanak egin ditu: olerkiak, ipuiñak, nobelak, antzerkiak, saiakerak; eta danetara irabazi ditu sariak. Eta danok dakigun lez, baita liburuak be idatzi ditu, ta asko idatzi be. Lengo baten ZER aldizkariak, bere ogeigarren liburuaren barri emoten eban.

Ikusten danez, ikaragarria izan da Zubikarai'ren lana. Ala dana geuk ikusita ez ba'genki, sinistu be ez egitekoa gizon batek orrenbeste egin leikeanik. Eta geiena euskerearen inguruan izan ba'da be, ortik kanpora be jardun izan dau. Ondarru'n eleizeak ipiñitako Escuela de Pesca izenez errian ezagutzen zan eskolearen arduradunen artean, aurrenekoa izan zan urte askoan. Eta orain be Kultura Etxea'ren arduraduna da. Ta lan guzti au, pamilyarentzat ogia irabazteko egin bear izan daben laneko orduetatik kanpora egin dau, beste jendea denpora pasa kalean batetik bestera dabillega edo nasai jarrita dagoan artean.

Baiña bere alderdi ona langille andia izatea ez da izan bakarrik. Beste edozein alderditatik begiratura be goi mailla erakutsi izan dau, kristiñau zintzoa, irakatsi onen bultzagillea, pamilyan senar eta aita erdua, jendeagaz artu-emon jatorrekoa ta paketsua izan da. Obeto ulertzeko erdal berbaz esanda, bere bizitza dinamikoan auzi askotan arpegi emon bearrean arkitu izan da, baiña egundo beronen abotsa ez da gogortu, berba bat bestea baiño gorago sekula ez dauzat entzun. Labur esateko, benetako zalduna izan da.

Ez noa onetan luzatzen. amaitu bearra daukadalako, ta berau lotsatuta ez lagatzen be bai. Egin daben lan andiagaz ondo irabazita dauko atsedena; baiña ez dirudi errie emotera doanik, ondarrutarrok esaten dogun lez. Jaungoikoak urte batzuk geiangoan osasuna emoten ba'dautso, oraindik lan asko ta onak ikusiko doguz Zubikarai'k eginda.

Alan izan daiteala, euskerearen onerako. Ta, zorianak Austiñ.

Derio, 11-7-1986
Etxaburu'tar Jose Mari (Kamiñazpi)
Omenaldia 1992 Liburuskas
Ondarroa

AUGUSTIN ZUBIKARAI, ETA EUSKERAZAINTZA

ERRIKOIA

Augustin Zubikarai antxinako euskal idazlea dogu, antxiñakoa eta gaurkoa, idazle sakona, ugaria eta errikoa.

Euskalerrian izan dan lenengo egunkaria, gudaldian sei illebeta inguruan eta euskera utsez argitaratzen zan egunkaria, Eguna, izan zan idazle onentzat lan-leku egokia: Orduan be lan asko eta sakona egin bear izan eban. Eta arrezkero idaz-tankera guztiak izan dira Augustin'entzat lanerako arloak: Antzerkia, ipuiñak, eleberriak, aldizkariak, saioak, olerkiren batzuk be uste dot baietz...

Augustin'ek asko eta ondo idatzi dau, eta beti erriak darabilen euskeratik urrean dagoana darabilela.

AUKERA BAT

Euskal-idazleak alkartuta jokutzen eben 1968n. urtera arte, baiña urte onetan, Arantzazu'n egin zan batzarrean, banaketa aundia sortu zan euskerearen barruan: Batzuk euskera batua sortu eta sartu eben eta beste batzuk, naizta batu bat egitearen aurkakoak izan ez, erriak darabilen euskereari eusteko bidea artu eben.

Amar urtean jokabide bi orreik bizi-bizi agertu ziran gure izkuntzaren kondairan eta amargarrena zan 1978n. urtean Bergara'n egin zan batzar bat arazoa aztertzeke eta an jokabide biak argi agertu ziran, ez ostera alkartasuna sortzeke erarik. Benetan tamalgarria!

Aukera bat egin bear zan eta egin genduan: Euskaltzaindiak erri-euskera zaintzeke ta indartzeko biderik ez eban argi eskeintzen eta zeregin au betetzeke Euzkerazaintza Erri Akademia sortu zan.

Idazleak bide-kurutze baten aurkitu ziran, bide bata edo bestea artu bear zan. Eta Augustin'ek, beste asko eta askogaz batera, erri euskerearen bidea aukeratu eban: Orixe zan, izan be, berak zaindu izan eban bidea.

Aukera egiteak ez dau asarrea esan gura. Augustin ez da asarre-gizona. Baiña aukerea egiteak bide bat artu eta beste bat itzi esan nai dau, eta orixe egin eban: Idazkera edo ortografian, joskeran, iztegian, aditz jokoetan... Augustin'en euskerea berak beti erabilli dauan bidetik doa, iztegi garbi egokia erabilliaz eta idazteko bearrezkoa ez dan atxea alboratuta.

EUSKERAZAINTZAN

Augustin'ek artzen dauan lana gogo ta biotz osoaz artzen dau eta Euskerazaintza'ren bidean lan egite au be, orrelantxe artu dau: Illero izaten dogu batzarkide eta beti ekarten dauz batzarrerara bere lanak eta asmabideak.

Erri-Akademiak errez ikusi dau Augustin'en lanerako almena, ugartitasuna, eta orain urtebete egin zan auteskundean Lendakari-Orde izendatu eban.

Berau da "Euskerazaintza"ren aldizkariaren zuzendaria.

Erri-Akademira sartzeko Itzaldi bat egin bear izaten da, araudiak diñoan lez eta Augustin'ek be egin dau bere itzaldia, gaia arrantzaleen euskerea dala, oraintsu Ondarroa'n.

Euskerazaintza'k itxaropen aundia dauka gizon euskalzaile onengandik.

LANAREN UGARITASUNA

Nik sarritan itauntzen dausat neure buruari: Augustin'ek nondik ateraten dau astia egiten dauan beste lan egiteko? Itxi dagiguzan alde batera Bizkai'ko Batzarretan eta aldundian beteten dauzan zeregiñak, baiña urtean elebarri bat, aldizkari bi edo iru zuzendu, egunero edo sarritan Deia'n idatzi, egunero edo sarritan Erri-Irratian itz egin, eskatzen jakozen ainbeste berbaldi gertatu, ainbeste batzar... Nondik astia?

Eta ez da gazte-gaztea be. Nok izan leiken bere urteetara elduta olako almena!

Lanaren ugartitasunak oitureagaz daukala uste dot zerikusia: Batzuk lan gitxi eginda bizi dira eta asko egiten dabela uste izaten dabe; beste batzuk, ostera, ainbeste lan egiten dabe eta, euren ustez, erdi geldu, gauza aundirik egin barik dagozela dirudi.

Eta arlo onetan geiago be esan neike: Olako lan ugaria egiten dauanari beste lan bat ezarri egiozu eta beti egiten dautzu eta arin egin be. Lan gitxi daukanari, ostera, eskatu egiozu eta ez dauka astirik, lanpetuta dago. Nori bakoitxaren barruan dagoan eskutuki aundi bat da au.

ERRIAREN ESKER ONA

Olako gizonari erriak bere esker ona agertu bear dautse, eta orretarako egiten dira omenaldiak.

Ondo egiña da ba, Ondarroa'ko Erriak Augustin'eri egiten dautsan omenaldia, ondo merezia bere aldetik.

Sarritan omenaldiak ildakoiak egiten jakez, eta ez dago txarto, eurak izan daitekez eredu eta bultzagille bizi diranentzat; baiña askoz obeto dago, askoz gauza egokiagoa da bizi diranai omenaldiak egitea: Esker ona agertzeke, zor bat ordaintzeke, eta batez be, beste batzuk lanera bultzatzeko.

Dana bearko da gure euskera maitagarria aurrera ateratea nai ba'dogu.

Bejoakoz ba, egun onetan Augustin'eri eta Ondarroa'ko erriari lerro onein bidez, gure Zorion-guraria eta gure txalo beroa: Olako gizonak dauzan erriak bizia izango dau, bizi ugaria.

Olazar eta Uribe'tar Martin
Euskerazaintza'ren Lendakariak
Omenaldia 1992 liburuska
Ondarroa
(Egokitua)

ORDU ONEAN AUGUSTIN

Txikitako lagunak eta eskolako lagunak berba bigun eta samurberak izan jakuz, gure belaunaldian beintzat. Oraintxe be, eretia dogunean alkarri gomuterazo eta pozarren jarri oi gara. Txikitako lagun, betiko adiskide; edo orrelakoren bat.

Uri berebean jaio ez ginealako —bai, oster. auzo auzuan— Augustin eta biok, zeatzean ez gara txikitako ez eskolako lagun izan. Orraitino ge-roago, ogei urtera eldu baino leen —baina bako-txa bere urian, eta alkarregaz ez gorputzez-euskal eskola zabal eta sakabanatuan eskola mul-til berezi biurtu ginean.

Augustin gazterik asi zan idazten eta zaartzaroan be, lan ori, ez dau laga Gizonaren etorria! Irakaslerako eskolatu zan, eta bere bide ori ez eban itsumustuan edo arinkeriaz aukeratu. Alan be, bizitzaldian era ezbardinetako ardurak eta ekinak izan ditu.

Bere jita, kazetariarena izan da. Joera onek gogoia ta adorea ez-zik lurra bizkorra be eskatzen dau; eta erabili bear dan izkuntzea sakon zabal ezagutzea be bai.

Euskal atala eukan egunerokora bialtzen zituan bere leenengotako idatziak, bizitza arrunteko albistak eta ganerako esamesak. Arik lasterrean teatru lanak atonduten asi zan. Kanpoko mundua bere barruko ganbarara eroango eban, eta or lagunak, pertsonaiak, jazokune eta egoerak, apan eta garrak morapilotuta, elertiko emoi biurtuko. Urrengo urratsa kontakizunak, ipuiñak, nobelak idaztea. Poesi mendiaren aldapan be saiatu izan da, eta kanta barrien letrak ezezik olerki sentigarriak be laga deuskuz.

Aitatu doguzan arlo guztietan an or emen izan direan batzaldi batzuetara bere lanak agertu eta urteetan sariak sari lortu izan ditu.

Idatzitako edozein lanek bere balioa dauka, gurari dagokionez. Baiña jantzia, izkerea be nai-ta-naiez aintzat eta aztertu bear. Ariari jarraitu aal izateko azalpen eta deskribapenak jasean atonduko ditu, eta beste ikuspegia, alkarriketak berebiziko nortasuna dabe Augustinen lerroetan. Erriagandik zuzenean arturiko izkerea dau-ta, gure aietako arrain bizi-biziak lakoak dira. Eztabada zorrotz eta batzuetan gordin samarrak, irakurleak irribarreka beraganduten ditu, testulariaren gatza ta piparra daukelako.

Orrelan ba, edozetariako arrainak artu ditu literatura itsasoan, baiña arraiñok —pita menea edo lodia, zelan dan— banan banan arrapatu ditu, eta ez arrasteruaren sare transkilagaz brastadan. Argitaratu dituan liburuak ainbat dira. Bakotxetik bat artu eta besuar-tean estutu ezetz!

Erlojuaren aurka diarduan gizona da. Gibel onekoa, oster. Eginbearrak arduraz asita arduraz amaitzen dakiana. Augustinen errekan ura-beerak izan arren, bere ontzirik ez da sekula ondoa jota



Omenaldia. Dantzariak

geratu. Beti azalean, beti aratinik, eta kare-lak garbi.

Bere idatzietan Ondarroa da geienbat protagonistista.

Eta itsasua...

Langelaratu, eta paper zuria eskura baiña leen, idazle onen buruan ordenadoreak lan egin dau. Ezin bestela ainbeste gauza ezbardin jorratu. Eta ederti orraziz orraztu.

Kontakizun ernagarriak maneatu ditu, gure aldikoak eta. Baiña leenagoko eta ta pasadio salmeratsuak be, zoragarri kontatu izan deuskuz.

Aldi erbi bainotsuetako gertaera gazi gozoak, arrantzale erri bear-tsuaren arnasartean uretuak. Kortzeleku mamuen geriza luzeak eta itsasuaren marru berbots antzekoak sortuerazoak.

Orraitio Zubikarai idazle bakarrik ez da izan. Irratietan eta jentaurrean amaika itzaldi egin dau. Teatro alorreko lan jasekoak be eratu ditu, eta ondarrutarrak antzerki eta kanta, erririk erri ibili izan dira, unada ilun eta bildurpeketan artan be. Aspaldion Kultura Etxeko artezkari duzue eta eragile adoretso.

Txomin Agirre mozal eta minberatsuak ogeigarren mende onen asierako Ondarroa ezagutu eta kantatu eban; bere "Arranondo" kutuna.

Arrezkero Zubikarai Bedialauneta duzue aren jarraitzailea, uriko bizimoduaren esale nekaezina. Ganera, uri eta baserrietako istoriak eta argitasunak batu, eta liburu asko agertu ditu. Ingurueta-ko zokondoak be zeatz ezagutzen ditu, perretxiku zaleak bere bazter ezkutuak lez.

Izkereari gagozala, bein eta barriro esan dau R.M. Azkueren iztegi totoloan, Artibai amaierako barbarik asko ez dela sartu izan.

Oraingo aldi filologo ugari da euskal-alorrean be. Augustinen lanak arakatu eta a bera egiten asi zan iztegiñoa mardotuteko, or dabe miats aberatsa, berberaren orrialdetan.

Zein gozo ta eder dan erriko seme zintzo bateri jaioterrian gutzizko omena atondutea; eta beraz, euskereari.

"Ondarru, erri bera"... esaten, txikitatik dakigu.

Amatu duzue sasoi egokian, eta berotasun orretan iraun begi erriak.

Zeuen "itsaso bazterra" goratuten ez dau parerik izan irurogei urte oneetan.

Ordu onean, Augustin.

Eusebio Erkiaga, 1992
Omenaldia 1992 Liburuska
Ondarroa
(Egokitua)

AUGUSTIN ZUBIKARAI,

Augustin Zubikarai-ren ezaguera noiztikoroimenaren barne-tasunean txautzen dit, 62-tik 72 arteko amarkadan Ondarrutarrak taularatzen zituzten lanak Euskal Erri osoan arrakastatsuak izan ziren eta belaunaldi ontatik dator, nire entzunezko ezaguera. A. Zubikarai antzerkilariaren entzutea.

1970ean Bizi Garra-tza eta Mende zaarrak "Irakur Sailek" argitaratu eta ondorengo egunetan Ondarrutar onekin solasteko aukera izan nuen. Geroztik ainbat leku desberdinetan topatu gera, bai dala, epai maaikidetzan, aolkularitzan, itzaldietan... eta abarretan. Augustinek ezetz esaten bai ote daki. Zenbat aldiz bere etxeko bulegoaren ixiltasuna telefonoaren txirrinarekin autsi ote dut, inoiz ez dut itz gogorrik entzun eta Augustinen etxera urbildu naizen guztietan irteera erregali oparoz betetako poltsa batekin etxeratu naiz.

Zubikarai Jaunak gertaera mikatzetan ere ausardia erakutsi dit. Orain dela 18 urtetako gertakizuna bururatzten zait. 1974 urtea zen, Intxixu antzerki taldeak Ondarruko plazan "Orria" obra antzeztu zuen eta antzerki lan onetan Karlo Magno-ren gudariei "Frankoak" deitura ematen genion, eta onela izanik (Ez dago pentsatu bearririk ere) Frankoak gora eta beera aritu ginen, Ondarruan ere belarri zorrotzak zituena izaki eta Franco-rengatik ari ginela pentsatuko zuen, Antzerkia amaitu ondoren Goardia zibilak etorri eta "recojan todos los trastos pero no salgan de esta plaza hasta que venga el superior de Gernika". Augustin goardia zibilekin mintzatu zen "Orden publikoan" zenbait utsik egin bazen bera arduratuko zela esan ondoren, Oiar-tzuarrok etxera bueltatu aal izan genuen.



Elorrioko kaleetan 1990ean EGUNAKO lankideei egindako omenaldian. (Augustin Zubikarai, Eusebio Erkiaga eta Ignacio Eizmendi "Baserri")

Goian aipatu dudan amarkada orretan antzerki alorrean leen urratsak eman nituen. Amarkada aretako antzerki baratza bitan, lorez eta sasiz banatua zegoen, bi aldetako bizikidetzaz ezinezkoa izan zen eta zapuzkeri arek naturaren zikloa bezala kondariak irentsi zuen, ondorengoentzako esperientzi mikatza suertatuz, Zubikarai izan zen gutxi artean antsutazun artatik iesi egin zuen eta rikoia, naiz eta lankidetzaz bi alderdiari eskeini. Leen eta orain Augustinek gizatasuna dirdiratzten du.

Augustinek 40 antzerki obratik gora idatzi ditu, nik irakurri eta ezagutzen ditudenak 27 dira eta lan guzti auek antzerkiaren ortzadarra betetzen dute, Irakurleak, dramak, komediak, trajikomediak, bizitzak... Aur eta gazte, adineko eta beste antzerki mota askotakoak aurkituko ditu.

Augustin Zubikarai antzerki idazle uts bezala ezin aztertu dezakegu, gizon onek antzerki sorpen guziari bi doain iraukor ematen dizkio: Alde batetik Augustinek antzerkia taularatzen da-

kiela eta idazten dituen antzerkiak errez taularatu daitezkeela ederki frogatua dagoen bezala (Kresaletan, Mariñelak, Jaunaren bideetan). Bestalde, gizonengan duen sinismena, antzerki lan guztietan aurkitzen diot esperantzaren argitxoa eta bear bada au izango du gure Augustinek lan guziaren legamia.

Eugenio Arocena Egimendia Jn.
Antzetiaren zuzendaria
Omenaldia 1992 Liburuskara
Ondarroa
(Egokitua)

ZUBIKARAI'REN BERBAK

Ondarroan 1992'ko Azillaren 8'an izena eroango dauen enparantzaren askundean.

Orain urte batzuk, Mikel Angel Lertxundi taillagille ospetsuak olgeta-benetan nire irudia buztiñean landu ebanean, nik ez neban pentsaten onetarako izango zanik. Ametsik be ez.

Len buztiñean zana orain brontzean.

Lertxundi'ren eskola jakiña da: burdiña, arria eta egurra, Euskalerrriaren ezaugarri lez.

Baiña nun itxi dau berak egurra?

Nik esango neuke egurra nire kontu itxi dauala.

Lengo zarrak Erremigio arotzaren loba lez ezagutzen nin-duelako, eta geroagokoak Salbador arotzaren semea.

Beraz egurra nire egituran dagoala esan lei.

Amari be luzatu bear dausat oroimena.

Ain zuzen or goiko San Pedro txurru gaiñetik egoan sagastia, letaña bidetik asita, onaxe beraiño etorrcn, Lekeitiotik Ondarroarako bidea egitean ebagita. Eta etxe onen aurretik emen egin zan arrain lantegia egiteko saldu eben. Orra, azken baten, mundua biraka zela ibilten dan, gaur nire izeneko plazan geratzeko. Eta gaurko Unanuetarrei gogoratu bear dauset nire amak sagasti a don Pauliño bere osaba abadeagandik ondaretu ebal, eta don Pauliñoren ama, Pedro Mari Unanueren arreba zan.

Orreik lagata, amaitu daidan, eskerrak emonaz.

Eskerrak Ondarroako Udalari, eztakit zelako izarra naizen, baiña Seme Txit Argi izentatu nabelako.

Eskerrak omenaldi onetarako arnasa eta laguntza emon daben Jaurlarintza, Bizkaiko Aldundi, Bilbao Bizkaia Kutxa, Euskal Telebista eta abarrei.

Eskerrak eta zorionak Arranondo-Kresala, Kresala-Arranondo taldeei eta Besarkada bat Ondarruko erriari, txikikeriak aztuta, egun oneitan euskeraren ekin-tzetan jokatu dabelako.

Azken baten nire irudia emen ipini ba'da be, euskeraren irudi izan daitela gura neuke, euskera dalako Ondarruko kale, kantoi, plaza eta toki guztietan zaindu eta goratu bear doguna.

Gu laster joango gara, bizitzako legea da-ta, baiña euskerak iraun dagiala, Ondarruren goratzaillerik andienak, Txomin Agirrek be eskatu euskun lez.



IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bear ko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

Sariak lau izango dira:

- 1.^a 40.000 pezeta
- 2.^a 30.000 pezeta
- 3.^a 20.000 pezeta
- 4.^a 10.000 pezeta

Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

GIZON-EMAKUMEAK JAUNAK EGIN ZITUEN

Jainkoa'k, mundua prestatu ondoren, gizakiak egin zitun gizon eta emakume. Berdiñak izan arren, euren arteko bereiztasunak badituzte: ar eta eme dira. Orrek sortzen du, alkarren arteko osagari egiten dituen, alako ezberditasun bat. Gorputzeko bereiztasunak badakar sentimen aldeko bereiztasuna ere.

Adan, lenengo gizona, Biblia'k dionez, Lurrezko Gizona deritza; Eba, berriz, Bizidunen Ama. Emakumeari bere bereiztasuna, ama izateak dakarkio.

Ama semeari lotuta biziko da aldi luzeetan: Berak emango dio bere odoletik odola, eta bere bizitik bizia. Gerora, berriz, bere bularretatik janaririk egokiena.

Ar-eme arteko beriztasun oiek ez dira gizakiak asmatuak, gizakien Egilleak sortuak, baizik. Gauzak onela badira, Jainkoa'k ala izatea nai izan duelako da.

Ez zan konbeni gu arbolapeetan, peretxikuen antzera, jaiotzea, bakardadean eta bakarki, iñorenganako ar-emanik gabe. Berak sortu duen era onetan, berriz, jaiotzen geran unean bertan, badegu guretzako janaria prest duen ama bat inguruan; gure ardura gau-ta-egun izango duena. Badegu aita ere, amaren lagungarri eta berarekin batera geure bizia aurrera ateratzen saiatuko dana... Orra, bear bezelako famili batean, guretzako, sortzen diran bizi-leku eta inguru egokiak.

Aita-amak ez dira izaten berdin-berdiñak: Aita izaten da ama baiño indartsuago eta zakarrago; ama, berriz, legunago eta xamurrago, umetxo jaio-berriari dagokion eran... Noiz edo noiz bata-bestekoz aldatzen dira; normaleko gertaera, ordea, ez da aldaketa au izaten, bestela baizik.

Ume jaio-barriak guraso gazteak bear ditu eta ez agure zaarrak... Ori orrela izanik, gizon-emakume arteko maitasuna gaztaroan agertzen da indartsuen... Gizakiari ala konbeni.

Jainkoa bera da maitasuna eta maitasunaren iturburu. Atomoak, molekulak bezala, materiako maitasunez lotuta izaten dira; zugaitzek beuron polena eskeintzen diote alkarri, futu eta emaitza berriak lortzeko; beste bizidun orok maitasunez alkartzen dira bizi berriak lortzeko eta euren kumeak aurrera eramateko. Gizon-emakumeak ere legepe oietan diardute; baña, ez dira abere utsak. Badute animaliek ez duten beste era bateko ezaupide eta maitasuna ere. Gorputza bakarrik, asko izan arren, ez da ezer espirituarekin konparatzeko. Onek zuzendu bear ditu gorputzaren griñak eta eskabideak... Zenbat eta maila gorago, ainbat eta maitasuna Jainkoa'rengandik gerturago.

Maillan gora Jainkoarengana jotzen badegu eta bera maitasunaren lokarri gertatzen ba'da, orduan izango da iraunkorra eta betirakoa gure arteko maitasuna.

"Zuk egiña da mundua/Zuk lurra eta zerua/Zuk amaren muxua..."

PEKATUAK JESUS'ENGANDIK ALDENTZEN GAITU

Jesus'en jarraitzalle izatea, egintzeetan mamitu bear dogu. Baña, bide orretan guretzako ostopoa pekatuak dira. Pekatua okerra ba'da, orren zegaitia ez da bat ere ohea. Zergaitik okerra egiten dogu? Zer dogu biotz-barruan orrela jokatzeko?

EZIKETA

Arrokeria, gorrotoa, norberekeria...? Baña, zer dogu? Biotz ori garbitu bearko dogu, Jesus'eri jarraitzeko ostoporik izan ez dezagun.

Arrokeriaren ordeztasuna, gorrotoaren ordeztasuna, norberekeriaren ordeztasuna lagun-urkoarekiko zaletasuna... Zer kendu eta zer ipiñi...? Fedea, Itxaropena, Maitasuna batez ere eta oiekin batera zuzentasuna, jatoritasuna, leialtasuna, apaltasuna, egizaletasuna eta abar ipiñi bearko.

Pekatu egitean, Jainko gabeko basamortura urrintzen gara... Jainkoarekiko ar-emanak austean, lagunartekoak ere austen ditugu. Ebanjelioko Seme ondatzalleak etxetik urrutira alde egin zuan, an urrutietan, bere ondasunak okerkerietan txunditu arte... Gero etorri zan gosetea, lan-gabezia, larri-aldia... Eta, orduan gogoratu zan bere Aitaren etxearekin. Aregana itzultzea erabaki zuan. Aitak ez zuan kanpora bota, etxean onik artu, baizik.

Onela mintzo da Jesus: - Nerekin etorri nai duenak, uko egin dezaiola bere buruari, artu dezala bere guztuzea egunero eta datorrela nere ondoren... Zer zaizu mundu osoa irabastea, zeure burua galtzen ba'dozu? Nerekin ibiltzen, ñor, munduaren aurrean, lotsatzen ba'da, neu ere berarekin lotsatuko naiz aingeruen aurrean.

Jesus'ek bere Aitaren naia garbi erakusten digu: Jainkoa maitatu eta maitasun ori lagun-urkoarenganako egintzetan mamitu. Orra errez esan; baña, ori betetzen ez da errez. Eskerrak bera gurekin doala bidean gure laguntzaille.

Ona zer dion idazle batek:

Nere bizitzaren ondartzan nabillela, nere oin-arrastoen ondoan, beste batzuek ikusten nituen; baña, naigabea eta miña neregantatu ziranean, oin-arrasto bat galdu egiten zan... Orduan onela esan nion Jauna'ri:

Jauna, pozik eta zoriontsu nabillenean, orduan zure arrastoak nerekin doaz ondartzan aurrera; baña, nekea eta naigabea neregantzen diranean, orduan zuk alde egiten didazu... Zergaitik?

Nik ez dotzut alde egiten!

Zure oin-arrastoak nun daude, ba...?

Oiek ez dira zeureak, neureak, baiño.

Eta, neureak nun dira, ba?

Zeure oin-arrastorik ez dago, Neuk nere eskuetan eramaten zaitudalako.

"Zabaldtu itzatzu, Jauna / Zure errukizko ateak
Eta askatu guregan / pekatuen kateak..."

GURE OKERKERIEN BARKAMENA

Jesus'ek bere bizitza osoan maitasuna erakutsi digu: Jaiotzean gure lagun egin da; Eukaristian, gure janari; Eriotzean, gure erosle: Piztueran, gure sari. Eta, gure okerrak barkatzen, agertzen zaigu xamurki.

Jainko-maitasunari, ordea, geuk ipintzen diogu neurria, geuk lagun-urkoa maitatzean. Eta, barkamenari ere, berdin: Barkatu geure zorrak geuk geure sordunei barkatzen diegun ezker...

Seme Ondatzallearen parabola Jesus'ek berak asmatutakoa da. Guretzat asmatu zuen. Zituen ondasun guztiak artu eta urrutira joan zan, okerkerietan poltxa utsitu arte... Goseteak erakarri zuen etxera eta ez maitasunak.

Alaz ere, aitaren biotzak, bere besoetan, semetzat artu zuen berriro. Ardi galdua artzeko beti izan ditu Jesus'ek besoak zabalik. Okerkeriari gorroto ba'dio ere, maite du pekataria.

Maitasunaren neurria, barkamenarena bezala, berez neurri gabea da; geuk ipintzen diogu barkamenari neurria eta esia... Bere aotik ateratzen dan itza eta berbea auxe da: - Zoaz pakean... Geure jokaera ere berdin bear du izan eta ez, arrika ekin pekatariaren aurka.

Etxe baten babesa eta aitaren arnasa
Amaren laztana eta alboan amama
Aurtzarotik famili baten itzala
Botatzera zoazen arria.

Senide gabe eta lagunik ez
Etxetik at bide-bastarretan iges
Aterpe gabe billutsik
Janik-gabe eta urik ez
Etsaiak atzetik zeure burua ikusi
Ez ba'dezu kendu eskutik
Botatzera zoazen arria.

Maitasun egarriz
Zorabiatuta munduan
Egarria wiski-ardotan
Ito bearrean bein ere
Gerta ez ba'zera kendu eskutik
Botatzera zoazen arria.

Erotasun zurrunbilloak
Aizeak daraman orbela
Bezela

Zeure gogo-erraiak
Malkorretik malkorrera
Arantz-arteko aitzeetan
Eraman ez ba'dizu kendu eskutik
Botatzera zoazen arria.

Giltzapean preso
Illunbeetan zoro
Auspez etzanik
Malko-errekak ixuri
Ez ba'dituzu kendu eskutik
Botatzera zoazen arria.

Ardi-galduaren antzo
Nora gabeko laño
Beltzak kukulduta
Odolez gorritutako
Iñoren makilkadak
Bizkarrean jaso
Ez ba'dituzu kendu eskutik
Botatzera zoazen arria.

Iñoren serbitzari
Aukera
Txikienik gabe
Goizetik gabera
Besteen esanetara
Gerria makur
Lurreko autsetan
Bizi izan ez ba'zera
kendu eskutik
Botatzera zoazen arria.

Zatoz nere billa
ene Artzai ona
Ardi galdua lez
Emen nabil Jauna
Nora-biderik gabe.

Urrunean nago
Inguraturik otsoz
Agin-karraska
Agin zorrotzak
Odol-egarriz
Nere gain.

Atoz nere Artzai ar nazazu besoetan
Eta eraman zeure artaldera
Izan dezadan izan
Askatasuna lurrean
Alaitasuna zeruan.

GURE ONDOAN JAUNA /EGON ZAITEZ BETI
ZU ZARA GURE BIDE / ETA GURE ARGI.

(M. Zarate ta J.J. Elezkano)

MENDI-MENDIAN

Aldizkari onetan 167 gn. zenbakian, Altuna'tar Josu, "Basajaun"en, oroitzat idaz-lan bat argitaratu neban bere mendi-gaiak idaztean erabiltzen eban trebetasuna gomutaratuaz.

Aitatutako idaz-lana nik gura izaten dodan baiño luze-agoa gertatu jatan eta an-emenka moztu bear izan neban, arik eta neurri egokian geratu arte.

Ori dala-ta ondar-monda oneik korapillotuz, gaiari jarraitzea otu jat.

"Basajaun'eri" azkenengo urteetan osagilleak debekatu ei-eutson mendietara igotea. Mendi-zaletasuna biotz barren-barrenean sustraituta daroenak, ain samingarri dan aolkoa eroapen aundiaz artuko ebalakoan nago. Baiña mendira joan barik be, berak eukazan jakite ta oar-ikasia-gaz, azkenengo egunak arte eten barik egin eban lana bere arloan.

ZER'en 127 gn. zenbakian (1989'ko otsaillean), jakin-erazi euskuen bere eriotza ta zenbaki berberan berak egin-dako idaz-lan polit bat euskerearen alde argitaratu zan. Onetara, benetan esan geinke il-arte bere maitasun ta zint-zotasuna euskera ta ZER'eri opa egin eutsozala.

Aurreko zenbakian, 126 gn. be bai, Iru-Mugarrieta mendiari buruz azalpen bikain bat, zeatz-meatz egindako lana lau ataletan zatituta, eskeiñi euskun: **Ikuspegia, Mendirik-mendi, Ikusgarriak, Larreak eta zugaztiak.** Auxe zan erabiltzen eban berarizko tankera: zertzelada ugari emonaz, gauza guztiak azaldu.

Ba-dirudi Aralar mendia aukeratu ebalaz azken agurra emoteko. Berak iñoan lez: "Zein mendigoizalek ez daki, Aralar... Euzkadi'ko biotz-biotzean, erdi-erdian aurkitzen dala eta, orixegaitik geien bat, beren edozein goi-gallurretik gure lurralde maitegarri geiena ikusten dala?"

Bai adizkide "Basajaun", egia da; ta an ibili izan garanok ondo dakigu zuk diñozun bezela dala.

Esanak gara gaztaroan mendizaleak izan giñala, ta zaletasun onek ondiño be mendira bultzaten gaitula. Orain arte, Jaungoikoa'ri eskerrak, osagilleak ez dausku debekatu Altuna'tar Josu'ri bezela mendira joatea, baiña bein zartzarora eldu-ezkeror norbera izan bear da osagillea, geratzen jakuzan indar apurrak neurritz eta buruz erabiltzeko, iñolako arriskueta sartu barik.

Gure sasoiaren Euskal-Erriaren oi ziran leiaketak (eun mendikoa, goierakoak, zearbidekoak eta abar) bete ta gero, gure lagun-taldekoak bi millatik gora neurkin daukazan amar mendi leiaketa egitea erabagi genduan. Gure aberriaren ain goierakoak mendi-gallurik ez dagozan lez, Euzkadi'tik kanpora joan bear izaten gintzazan eta batzutan Andorra'ra ta bestetan Andaluzia'ko Sierra Nevada'ra joaten giñan.

Azken toki onetan, Sierra-Nevada'n, igon gintzazan mendi artean Mulhacen, goiena, (3.478 neurkin), Veleta

(3.392 n.), Borreguiles (2.858 n.)... batek (3.200 n.) **Elorrieta** dauko izena.

Zelan izan leiteke, toki bazter aretan, euskotar izen ain argi ta jator bat egotea? Ori zan gure galdera, ta jakin-min aundi bat sortu zan gure barrenean.

Gure artean egozan gizakiei, naiz mendi bideetan naiz ostatuan, galdetzen geutsen agerkizun arrotz a adierazo al izango leuken argibideren bat da'eban, baiña iñok ez ekian zer esanik.

Etxera biurtu ta gero be, arazoa arakutzen jardun genduan eta azkenean batenbatek esana edo nunbait irakurritan, urte asko dira ta ez naz gomutatzen, lugin-maisu edo ijienru euskotar baten abizena zala jakin geban.

Agian, an lur eta mendietako neurketak egiteko ebillan talde bateko burua zan, eta berak egindako lanagaitik eskerronak agertzeko, beren abizena ezarri eutsoen mendi bateri.

Beraz, Aita Barandiaran'en ikasle edo jarraitzalleren batek ain bakan dan gertaera ezagutuko ba'leu, lasai begola eusko abendearen sustrai edo aztarrenen bat al izango leitekean aztertzen asi barik. Arazoa argi ta garbi dago: Sierra-Nevada ez da iñoiz ez Aitor'en ondorengoan egoitza izan.

Esana egiztatu nairik, orain **Auñamendi Argitaldariak** ataratzen ari dan **Euskal-erriaren Orotako Enziklopedi Apainduan** begiratu dot eta laburki ara zer doñon:

Elorrieta Artaza Octabi.- 1883 urtean (gutxi gorabera), Bermeo'n jaioa. Erri onetako osagillearen semea zan. 1904'an españar Laterriko zaintzan **Mendietako zeregiñetan** sartu zan eta 1928 urtean Mendi-Arantza eta Eiza-Saila'ren Zuzendari Orokorra izendatu eben.

Au dala-ta, uste dot ziurtasunaz onartu leitekela esan dana.

Gure `Basajaun'ek **Elorrieta** mendia ezagutu izan ba'leu, nik egindako azalpena berak obeto egin eikean. Izan be, zeaztasun guztiak adieraztea zan bere tankera ta berezitasun nabarmena.

Aita'ren etxeko goieratik dana ikusten dala-ta gu be orain ikusten gaitulakoan nago, bere kolkorako esanaz:

Au bai aukera ederra galdu dodana, ZER'en irakurleik gai jakingarri ta bakan bat azaltzeko!

Ez zaitez larritu, Josu, oargabe bat ba' zan be, zuzendu-ta dago.

Azillan gagoz eta il-onetan Santu Guztien-arte alkartasuna geitu egiten dan-ezkeror, otoia-gaz batera artu egizuz gure oroipen gartsuenak eta gero arte.

IDIGORAS'tar JOSEBA ANDER

1992-11-2

IGALIEN ATSEGIN-BARATZA

(Etxebarria, Gatika'n)



Bai orixe!... Igalien atsegin baratz-ortu Paradisu lan-goxea dogu. Bere jabea Jose Etxebarria da eta urte askotan izan dedilla...

"Txone Barri" Basetxe ostean mailka zabaltzen dira gorantz zazpi ektarea margotsu, orain ogeta bost urte direala toki bertan egoan pinadiaren ordez.

Aldi orreitan Etxebarria'tar Joxe'k zeregin askotan ziarduan. Goizez lan egiten eban Basurto'ko Gaisotegian eta arratsaldean Iaurleko batzuk geiago eukitearren bere asmo edo ametsa etorkizunera bidean jarten eban.

Bost urte dira motozerra piñadira sartu zanetik, gero zulatu eban sakon mendiegalean malkartasua, araneke are ta ondar kaskarrak mendiko bustin lurragaz nastauteko.

Lubaki, ondakiñak garbituz, lur leun bardiña sakondu ta aberastu eban berezko zimaurrez. Zugutzen utsa bakarik ikusten zan.

"Txone Barria" berbeak ez dauko baliotasunik, Joxe bera izlari jatorra izan ezik. Gure gogoetari dan Unamuno'k Bilbo'ri bere uriari abestian esan ebanez "berbak egiteko ta esatekorik ez"... Udagoien'eko egun oneitan, 107 zugatz-sagar desbardin ikusteak, poz-ikara emoten deutso ara doian ikusleari. Bearbada, aurtengoa izan leiteke uzta-bilketarik onena: atsegin baratz-ortu margo askoduna igalez beterik: Gabon-sagarrak Boskantoiak ta Urtebeteak, Sukarrieta ubelak, Eba sagarra, Txarba Gorria, Urdin sagarrak, Cardinal eta Erreinetak, Bella Boskop zu-riak ta Kanada'ko, de Coux Gorriak ta Errege-sagarrak.

Aurtengo udagoienetan Joxe Etxebarria'k eukan poz-arrotasuna, arrotasun jatorra esan geinke. Iñori kalterik ez dautso egiten, poz-atsegin emon baiño.

Munduko girorik onena Euzkadi'n dogu. "Lau aroko li moi-ondoak" ikusita, txangolari ikuslea konkorturik geratzen da, bere buruari itanduten deusola zelan etorri leiten gure arteko lurraldietan urtsua dan igalia, ta barruko poz pozez Jaungoikoari esaten, "eskerrik asko Jauna". Baita guztiz bitaminaduna dan kiwiak batzuentzat txasta ez ain ona eukiarren.

Ta zer esan Joxe'k mastiko matzarretara eroaten gaituenean ta bere aotik entzun eskero: " Eztakit sinisterazo edo ikusleen **gizatalde** buruan sartuko ete dan nik esaten dautsedanean Mats -moskatelak agertzen diranean emengoak direala, ta ez uste leiken lez, Malaga edo Alikante-koak.

Gure txangolari batek Itanduten ba'deutso gure Joxe Etxebarria'ri. Baiña zuk guzti ori lortzeko ixilleko edo ezkutukiren izango dozu!

Baiba, ori ez bai barik eta lenengo jakin beadira giroa aroa, ezetasuna, egurtsa jeografi-egorea, igali-jakintza, eta orrengan eragille direanak, lurraren gertakuntza ta olakoak.

LETONA'K

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko area. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

TXISTULARIAK MUNGIA'N

Aurtengo urrillaren 18' an Mungia'n giro bizi-bizia zomau dogu eta aspaldion baiño txistu-soiñu geiago entzun. Orregaitik, arlo onetan arduradun dan Madariaga'tar Gotzon' egaz alkar-izketa egin dogu barriak zeatzago ta garbiago, iturritik, artzeko.

Guk: Egunon, Gotzon! Urrillaren 18'an Mungia'n giro alaia ta txistu-soiñuak ugari izan doguz. Esan egiguzu ze jai izan zan.

Gotzon'ek: Urtero ospatzen da non edo an Bizkai'ko Txistularien eguna eta aurten emen ospatu dogu egun aundi ta eder ori.

10'etan alkartu ziran Bizkai'ko txistulariak, 10 1/2'eta ensaioa izan zan, 12'etan lau taldek egin eben kalejira, ordu 1'etan eres-aldia emon eben eta ordu 2' etan barkaria.

Guk: Nongoak etorri ziran?

Gotzon'ek: Bizkai guztikoak. Erri batzuk esango dodaz, naizta batzuk aitzuta izteko arriskua izan: Bilbao, Portugalete, Sestao, Barakaldo, Getxo ta Uribe Kosta osokoak, Orduña, Motriku, Ondarroa, Bermeo... Durango'tik ezin etorri izan ziran bertan ziralako San Fausto-jaiak eta euren zeregiña euken.

Guk: Goi-maillako arduradunak be etorri ziran?

Gotzon'ek: Bizkai'ko Txistulari alkartearen Lendakaria egon zan. Aurre'tar Anton be bai, baiña au txistulari lez etorri zan: Gero erriko alkatea ta Kulturako Ziñegotzia.

Guk: Zein da zure eritxia jai oneri buruz?

Gotzon'ek: Lenengo, egualdi ederra izan zan. Aspaldion olako gitxi izan doguz. Gero errian pozgiroa agiri zan, pozgarria da, izan be, 150 txistulari euren lan ederra egiten ikustea ta eurai entzutea. Gaiñera jai-egun au ederto antolatua izan zan. Txistulariak eurak be pozik ibilli ziran. Danontzat izan zan egun pozgarria.

Guk: Gatozen orain, Gotzon, erriko txistulariengana. Emen zenbat zarie, zelan zabilte, ba-daukazue laguntzarik?

Gotzon'ek: "Gure ametsa" dau izena erriko taldeak. Ni baiño lenago arlo onetan Paulin abadea ibilli zan irakasten, beste batzuk be lagun ebazala, eta gero talde au legetu egin bear zan eta 1957' an sortu zan Mungialde'ko Txistularien Gure Ametsa Taldea. Guztiz 40 inguru dira ikasten diarduenak.

Gure laguntzailleak Udal-Batza, ta Lankide, Aurrezki Kutxa izan dira.

Kultur-Etxean egiten doguz batzarrak eta Udaletxearen Eres-Leku edo "Konserbatorioan" ensaioak, urte guztiko larunbatetan.

Laguntzak ba-doguz, baiña dana-bearrean gabiltz, nasaitasun aundi barik.

Guk: Zeintzuk dira zuen eguneroko ekintzak?

Gotzon'ek: Jai eta igande guztietan kalejira egiten dogu goizeko amaikak inguruan. Au Mungia'n antxiñako oiturea da, bear ba'da berreun bat urte izango dira asi zala.

Guk: Gure erritik kanpora zelan dago txistuaren arazoa?

Gotzon'ek: Erri-maillan ez da ikusten lengo beste zaletasun txistua entzuteko. Or bizitasuna galdu egin dala dirudi, baiña txistulariak eta ikasleak iñoz baiño geiago dagoz. Egun onetan 160 inguru etorri ziran, asko gazteak.

Egun onetan emon genduan eres-aldian entzule asko izan ziran. Erriak erantzun eban, baiña urtero izaten dan eres-aldian entzule gitxi izaten doguz: txistularien adiskideak eta senideak, asko geiago ez.

Guk: Amaitzeko, zerbait geiago, Gotzon?

Gotzon'ek: Ez dogu aitzu bear, egun orretan emen 35 urtetan txistulari izan dan Luis Gonzalez'eri omenaldia egin jakola eta neuk be 40 urte daroadaz lan onetan eta omenaldia izan neban: Bizkai'ko Txistulari-Taldeak plaka bat emon euskun, Udaletxetik beste bat, eta emengo Txistulariak eta Bermeo'koak be bai.

Olako omenaldia artzen danean, esan lei zarrak garala eta baztertu egiten gaituela, baiña ori ez da orrellan. Gu aurrera goaz lanean.

Bazkaltzen 225 maikide izan giñan.

Urtero egiten dan jai au datorren urtean Nerbion ibaiaren ezker-aldeko erriren baten izango da.

Olako egun bat eratzeak lan aundia emoten dau, baiña izan dan lez, ondo urten ezker, pozgarria be bada.

Ezin amaitu alkar-izketa au guztiai esker ona agertu barik, eta ez gitxien Erriko Alkateari ta Udal-Batz osoari. Kalejira egitean be taldeakaz joan ziran udaltzaiñak eta ekintza batzutan alkate jauna bera be gugaz izan zan.

Guk: Zorionak Gotzon Mungia erriari emon dautsazuen pozaldi aundiagaitik, zorionak artu dozun omenaldiagaitik eta eskerrik asko barri guztiak ain zeatz eta argi emon dozuzalako. Eskerrik asko eta ekin lanari.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

MIKEL ZARATE

Mikel Zarate zelan il zan? Itaun oneri erantzuteko, adimenean arakatu, astertu, sakon-sakonetik nire barruan ainbestetan aletin egin dot. Ez dot baiña, oraintxe-arte erabagirik artzeko benetako asmorik izan. Baina kateaturik egon bai litzan jazo ziran gertakizunak; orduan gogoratzearen neke edo ardurarik artzea merezi dauala deritxot.

Makalik ebillala egun areetan entzuten zan, Bilbo'ko Izkuntza-Eskolan, klaseak emotera etorrenean. Aldi aretan Erzila kaleko liburu-denda baten bere "Euskal-Ortografia" liburuaren aurkezpena egiteko zan. Ni be, bertara joan nintzan. Jente pilloa, gizonak batez be, egoan. Aurkezpena egin ondoren, liburuaren izenpetzea (dedikatu egitea) asi zan. Nik, beintzat, Mikel' eri izenpetzeko neurea emon neutson. Berba atsegin eta agurgarriak, baita jarraitzeko animoa emotekoak idatzi eustazan idatzian. (Ez nenkian orduan berbok, beraren, Mikel'en gomuta bezela gorderik euki bear izango nebazana).

Laster asi ziran danak, edo an egozanen arteko askok, berari, Mikel'i azaltzen euskerari buruz egozan goraberak, edo aurkitzen ziran arazoak, batez be bizkaierera zala-ta. Oneri, bere erantzunen artean, Mikel' ek, ba-ebazala berak bizkaieraz liburu asko idatzita, erantzuten eutsoen, bere burua aldezturik. Ixillune luzeak egin ziran gero. Nik neuk, onetaz zeozertxu be esango neutson baina ikasturtea amaitu arte ixillik eta zuur nengoan. Ez nenkian, orduen be, ikasturte ori Mikel' entzat amaitu barik geratuko zala.

Izkuntza-Eskolan jairen bat ospatzen zan. (Aldia igarotean, gertaerak laiñotsu ikusten dira, beraz ezin izan dot ospakizun ori ondo gogoratu. Uste dot "Euskal-Astea" izan zala). Dana-dala, egunkizun batzuk ospatu ziran, beste askoren artean Mikel Zarate'k euskerari buruz itzaldi bat egin eban. Oraintxe be ezin dot aren gaiaren mamiñik gogoratu, baina bai abotsa, bere estarria, garrazturik egoala igarten zan.

Surrumuru bezela, Izkuntza-Eskolan, ez egoala ondo, makalik eta miñekaz ebillela entzuten zan, baiña nork pentsatuko eban ain arin bere eriotza gertatuko zala eta bere illetara egun batzuk barru

joan-bearra izango gendula? Urrango egun batzutarara, goiz baten, bere ama, ogetik jagiten ez zala ikusirik, bere gelara deitzen sartu zan eta ogean bertan ilda aurkitu eban.

Mikel Zarate'ren illetara jente asko etorri zan, Euskalerra guztitik, jakiña; bertsolari batek bere bertsoakaz mezan aren irudia omendurik, arratsaldeko bostetan, Lezama'ko eleizan, bete-beterik, gainezka.

Gure klaseko ikasleen artean ordainduta, gu, obeto esanda, Marga, nire lagun kutuna eta biok, aukeratuak izan giñan, loradun koroe erosi eta eleizara eroateko Mikel'en gomutaz. Ona emen koroearen ezaugarriak iñoana, (geuk ipiñita edo aginduta, jakiña); "Izkuntza-Eskolako zure lagunak".

Eleizea, jentez ateraino egoan, baita eleizpean eta kanpoan be sartu eziñik jendetza aundia geratu zan. Gure koroe eskuetan garoela, ortaz sartzen giñan eleizan... Onetan saiatzen gengoazala, gure Izkuntza-Eskolako beste irakaslea Joxe Lasa zana aurkitu gendun, zeñek gure koroearen lenego berbearen H baktasuna ikusiaz batera, ia Mikel'ek zer esango leuskigun surrumurratu euskun. Ez genkian orduan be, andik aldi luze bat ez dala, Joxe Lasa ber-beraren illeetara joan bearra izango genduna eta bere illobia, bere azkeneko atsedentokia, Lezama'ko erriaren ondo-ondoan, Zamudio'n aurkituko zala.

Bai, egia da, Joxe Lasa, gure Izkuntza-Eskolako irakaslea zana, Lezama'tik ur-ur, Zamudio'ko illerrian datza. Gure otoitz eta gomutaldia bere irudira zabaltzen da; gure irakaskintza-aldian ainbeste laguntza eta atsegin beragandik artu genduzenok ezker-onekoak izatea bearrezkoa dogu-ta.

LARRONDO

BEGOÑAKO ELEIZAN 1986'EN URTEAN

Bizkaiko Eleiz-gizonen Abadetzaren,
Zidarrezko eta Urrezko Ezteguetan.

MEZA ASIERAN

Gure Zaindari Birjiña maite
Jaungoiko berberan Ama,
ondo dakigu Kriston gurariz
gizonena be zarana;
emen daukazuz abade naiko
eskeintzen biotz on bana.
Esker oneko agertu nairik,
Begoñako Ama laztana,
zidar ta urrezko ezteguetan
eldu dira gaur zugana,
Ama zaitugu, seme gaituzuz,
bedeinka gure lan danak.

MEZA AMAITUKERAN

Biotz-biotzez agur bero bat
neure anaia laztanak,
Jainko maiteak onetsi begiz
gure esan eta lanak,
autortegi ta pulpitoetan
esan geinkezan esanak;
izan deitezan bene-benetan
Jaunan aurrean zuzenak,
lortu daiguzan Bizkai osoan
kristau zintzorik onenak,
auxe litzake guztiontzako
atsegin pozgarriena.

BEGOÑAN BERTAN, 1987'en URTEAN

MEZA ASIERAN

Abadetzaren zidar ta urrezko
ezteguak ospatzean,
emen gaukazuz, Begoñako Ama,
zure irudi aurrean,
gaurko egunean
zure etxean
ainbat abade eskean.
Amatxo maite,
erruki zaite
ta artu zure magalean;
zorion eske,
ementxe gaude,
esker-onaren menpean.

MEZA AMAITUKERAN

Gaurko egun au bene-benetan
guztiontzako pozgarri,
izan bekigu gure asmotan
baita be onuragarri,
gure Gotzañen ardurapean
beti lagunduz alkarri;
gogor estutuz gure artean
maitasunaren lokarri,
izan gaitezen danen aurrean
batasunaren oñarri,
Auxe dalako Kristau legean
egiazko ezaugarri.

(Oarra: Urrezko ezteguetako bat urte orre-
tan, Lertibe bera zan)

LERTIBE

MAITASUN BEROZ Gaurko Euskotar Gazteai

1
Euskal-erriko
gazterik naiko
zurekin aztuta dagoz jaungoiko.
Gure asabaen ekanduak
ez dira eurentzat mandatuak
eta nik uste,
maite dituela ezin beste
marsismoaren naste borraraste.

2

Ume-umetan
danak benetan
ezita geunkazan kristau legetan.
aurrerakuntzaren sareetan
diru salekeriz biotzetan
guztiz nastauta,
Siñismena be erdi galduta,
erruki dodaz, jauna gomuta!

3

Adimengan
arrokeria
eta oituretan nasaikeria;
olan ikusten dot, alegia,
gure Euskal-erriko gatzedia

dana ez baña,
batsuek doguz gazte bikaiñak
baña geienak ardi erkiñak.

4

Gorputzarekin
ainbat alegiñ
osasun ederra galdu ez dedin;
gorputzez agertuz beti liraiñ
arimaz barrutik naiko zikiñ,
Kristau neurea,
begira dozu Jainko maitea
noiz biurtuko ete zarean.

5

Euskera zale
ta erri maitale,
Gora Euskadika, kalerik kale;
olan agertzen dira didarrez,
nire biotza sarri negarrez
ikusirikan,
naste ugaritxo ezpanetan,
marsismo utsa egitadetan.

6

Gaur eguneko
gazterik naiko
aspertuta ei dagoz euren marsismoz.
Eusko Lege-Zarra barriztaurik,
lengoa gaurkotzat biurturik.
EUSKOTAR GAZTE!
jarraitu beti erri maitale
eta baita be Jaungoiko zale.

7

Gaur egunean
gure artean
konpondu eziña erri-lanean.
Erri batasuna ezpanean
orixe berori biotzean,
ia beingoan!
alkartzen garan maitasunean,
IRUTAN BAT DAN JAINKO LEGEAN.

LERTIBE

BELENAK

Aurten be ba-dabilz Belendarrak euren lan ederrari jarraitzen. Beste urteetan lez, su ta ke diardue Gabonillaren zortzian, Orban bako Andra Maria'ren egunerako, amaituta eukiteko. Idazkitxu au urten orduko edo batera, gitxi gorabera, amaituta euki-koko dabe.

Beste urteko lanak alde batera itxita, asmakizun bariakaz datoz, olan

beti gauza ezbaridiñakaz diardue. Asmo ezbaridiñak izan arren, gai bardiñera doaz beti, au da, geure Josu Ume ta jainkoaren jaiotzaren denporako ikuskizunak geure begi aurrean ipintea. Orrelan ikuspegi ezbaridiñak ba dira be, betiko gaira doazanez, gauza bardiña erakusten dauskue, baña beste aldetik begiratuta, ta olan obeto ulertzen dogu denpora aretan jazo zana.

Ez dautsegu itaundu ia zenbat ikauskizun jarriko dabezan, baña ez da gauza gatxa asmatzea zeintzuk izango diran aurkeztuko dauskuezanak eta, euren artean, ia ziur onexek egondo dirala:

- Iragarkundea
- Ikerkundea
- Ostatu bila



-Belen'en jaiotza
- Artzaniari iragar-kundea

- Erregeen gurtzea (Erregena)

ta abar. Aiztu barik, zeatz guztiakaz danak egiñak egondo dirala. Orretan ziur gagoz, zertzelada txikiena be egi-teko egilleen biotz eder eta zabalaren indarrez eraginda izango diralako.

Ori dala-ta, benetako dei bat egiten dautzuegu danori Belenok ikustera joan zaitezen; eta

ez umeak bakarrik baita guraso, senide ta edozein nagusi be joan daitela. Orrelako gauzak ikusteaz, txikitatik ikasi genduzan gauza ederrak bariro berbiztuten doguzelako ta ganera gizon Baketsuak izateko adorea emoten dauskuelako. Azken au beti jatorku ederto, batez ere gaur egunean munduan-zear dabilzan gaiztakeriak ikusten doguzanean.

Ori dana ikusteko, Bilbao'ko Santiago Deunaren Eleiz Nagusiaren "Gotiko" aterpe ederrara joan baño ez daukatzue.

Eta beste barik, Gabon Zoriontsua igaro dagizuela ta Urte-Barri on bat lortu.

EGILEOR'TAR JON

GABON ZORIONTSUAK eta URTEBARRI ONA

ZER gure aldizkari onen irakurle ta idazleai, bazkide ta laguntzaile guztiai **opa dautseguz Gabon zoriontsuak:**


Etxeko giro pozgarrian,
Adiskide arteko inguru atsegiñean,
Bearrezko da lan toki onuragarrian,
Errigintzako lanetan,
Errietan diran eleiza maitagarrietan.

Urte barri ona

Euskeleerriaren bakean,
Erri guztien aurrerapenean,
Lurretik datozen ondasunak ondo banatzean,
Lanaren eta irabaziaren ugaritasunean,
Neba-arreba garan gizon eta andra guztien alkar-maitasunean.

ZER - EUSKERAZALEAK

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa